



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 7a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/ITP-00037. Interpelazioa, memoria demokratikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/DEC-00038. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna”rekin eta bere konpromisoa adierazten baitu adineko pertsonen zerbitzurako politika publikoekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- 10-22/DEC-00039. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Nafarroako Gobernuaren konpromisoa, Nafarroako Siemens Gamesako azken lanpostua ere aldeztekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00317. Galdera, legegintzaldi honetan pertsonak eta enpresak laguntzeko abiarazi diren neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (5. or.).
- 10-22/PES-00291. Galdera, indarrean dagoen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren jarduterik-ezaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- 10-22/PES-00292. Galdera, 2021eko urriaren lehen sinatutako lankidetzaproto-kolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena argitaratu gabe egoteari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00293. Galdera, gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00294. Galdera, egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako bilerei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).

- 10-22/PES-00295. Galdera, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- 10-22/PES-00296. Galdera, itxarote-zerrenden gaineko Parlamentuko agerraldian emandako informazioari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- 10-22/PES-00297. Galdera, laguntza integratzeko talde teknikoen bilerei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- 10-22/PES-00298. Galdera, Parlamentuko agerraldian egindako baieztapen bati buruzkoa, zeinaren arabera 2010ean eta 2014an aukera baitzen prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- 10-22/PES-00299. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipenerako organoei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 10-22/PES-00300. Galdera, New Yorkeko Klimaren Astean lortu diren lankidetzahitzarmenei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/ITP-00037. Interpelazioa, memoria demokratikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak memoria demokratikoaren arloko politika orokorrari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Interpelazioa, memoria demokratikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

10-22/DEC-00038. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna”rekin eta bere konpromisoa adierazten baitu adineko pertsonen zerbitzurako politika publikoekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. "Nafarroako Parlamentuak aurten ere bat egiten du aldarrikapen egun honekin eta bere konpromisoa adierazten du adineko pertsonen zerbitzurako politika publikoekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela politika publikoetan aurrera egitea zahar-tze aktiboa sustatzera bideratutako ikuspuntu batetik, adineko pertsonen parte-hartzea sustatu-

ta, etapa desberdinetan, alor guztietan: soziala, kulturala, ekonomikoa eta politikoa.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du ezinbestekoa dela adineko pertsonen ikuspegia eta esperientzia aintzat hartzea gizarte osoarentzako balio gisa, guztion aberastasunerako aktibo gisa. Hala, beharrezkoa da populazio horren parte-hartzea politika publiko guztien osotasunean, eta horiek, halaber, belaunaldiarteko ikuspegi batetik aztertu beharko dira.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Adineko Pertsonen Giza Eskubideei

buruzko Konbentzio bat eta Nazioarteko Esparru bat sustatzea; izan ere, giza eskubideei buruzko nazioarteko legeak adin guztietako pertsoneri aplikatzen bazaizkie ere, oso gutxitan egiten da adineko pertsonen berariazko aipamena”.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00039. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Nafarroako Gobernuaren konpromisoa, Nafarroako Siemens Gamesako azken lanpostua ere aldeztekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. "Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Foru Gobernuaren konpromisoa, Nafarroako Siemens Gamesako azken lanpostua ere aldeztekoa, pasa den irailaren 29an Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Siemens-Gamesako kontseilari delegatuari adierazi zion moduan.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro eskatzen dio Europako Batzordeari enkante-sistema aldatu

eta tokiko edukia indartu dezan energia berriztagarrien arloan, zerga-mugak eta beste babes-neurri batzuk ezarrita, beste merkatu batzuetan daudenen gisakoak.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari premiatzen du Europako Batzordeari eska diezaion enkante-sistema aldatzea eta babes-neurriak ezartzea energia berriztagarrien industriaren arloan”.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00317. Galdera, legegintzaldi honetan pertsonak eta enpresak laguntzeko abiarazi diren neurriei buruzkoa.*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, legegintzaldi honetan pertsonak eta enpresak laguntzeko abiarazi diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak arlo fiskalean zer balantze egiten du pandemiaren eta energia-krisiaren eraginak leuntze aldera legegintzaldi honetan pertsonak eta enpresak laguntzeko abiarazi diren neurriei buruz?

Iruñean, 2022ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

10-22/PES-00291. Galdera, indarrean dagoen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren jarduterik-ezaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa.*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, indarrean dagoen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren jarduterik-

ezaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun ditzan:

Foruzaingoaren Mahai Sektorialean dauden sindikatuetakoa batek urte honen hasieran administrazioarekiko auzi-errekurso bat aurkeztu zuen Departamentuaren jarduterik-ezaren aurka, indarrean dagoen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean onesteko bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik.

Honako galdera hauek egiten dira:

1.- Egia al da gaur egun administrazio-espeditentea ez zaiola oraindik igorri aipatu administra-

zioarekiko auzi-errekursoa izapidetzen ari den organo judizialari, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezartzen duen moduan?

2.- Egia al da Gobernuari hiru aldiz egin diola errekerimendua organo judizialak, aipatu administrazio-espeditentea igor dezan?

3.- Zergatik ez du Gobernuak igorri aipatu administrazio-espeditentea?

4.- Zer agintari edo funtzionario publikori dagoiko aipatu administrazio-espeditentea igortzeko ardura?

5.- Organo judizialak hertsapen-isunen bat ezartzea erabaki al du administrazio-espeditentea igortzeari behin eta berriz ezeko emateagatik?

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/PES-00292. Galdera, 2021eko urriaren 1ean sinatutako lankidetzaprotokolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena argitaratu gabe egoteari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, 2021eko urriaren 1ean sinatutako lankidetzaprotokolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena argitaratu gabe egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Zergatik ez da argitaratu Gobernu Irekian 2021eko urriaren 1ean, bi autonomia-erkidegoetatik datozen material arkeologikoak berrantolatzeari dagokionez Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena, sinatutako lankidetzaprotokolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira?

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

10-22/PES-00293. Galdera, gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla

Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Zein dira gaur egungo datuak gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruz eta zein da balizko eskatzaileekiko portzentajea? Departamentuak zer balorazio egiten du eskatzaileen kopuruari buruz?

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

10-22/PES-00294. Galdera, egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako bilere buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako bilere buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2021eko urrian Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzuko buruak mezu elektronikoko bat igorri zien Oinarrizko Osasun Laguntzako lantaldeen zuzendaritzei, hitz orduetarako agenda berriak zirela-eta. Aipatu mezuan honela zioen:

“Laster osasun etxeetako zuzendaritza taldeei deituko diegu diegu eta azalduko dizkiegu ezarri nahi ditugun aldaketak, orain egoera epidemiolo-

giko berriak ahalbidetzen baitigu. Horren barnean dago agenden aldaketa bat, laguntze aldera presentzialtasuna pandemiaren aurreko mailaraino handitzea, pazienteekiko arreta hobetzeko asmoz”.

“Laster hitz orduak emateko irizpideen aldaketei buruz informatuko dizuegu, lortze aldera eskaera bakoitza profesional egokienari iristea, haren gaitasunak osotara garatuz”.

Baieztapen horiek direla-eta, honako galdera hau aurkezten dut, idatziz erantzun dakion:

1- Zer datarekin deitu zitzaion zuzendaritza talde bakoitzari?

2- Bilerak izan zirela berretsiz gero, zer dokumentazio eta/edo informazio partekatu zen bilera horietan?

3- Zer ekintza egin da horrez geroztik eskaera iritsi dakion profesional egokienari, haren gaitasunak osotara garatuz?

4- Osasun Departamentuak gaitasunak definitu al ditu profil profesionalaren arabera? Baiezkoan, noiz? Nola formalizatu da eta zer profil profesional definitu da?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00295. Galdera, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak uneoro eta egoerarik zailenetan mantendu al ditu minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrak, uztailaren 27ko agerraldian Osasuneko kontseilariak adierazi zuen bezala?

Baiezkoan, Osasun Laguntzaren Erronkaren agirietan, bertsio ezberdinetan, helburuetako bat zergatik zen, Osasun Departamentuaren beraren arabera, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrak berreskuratzea?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00296. Galdera, itxarote-zerrenden gaineko Parlamentuko agerraldian emandako informazioari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, itxarote-zerrenden gaineko Parlamentuko agerraldian emandako informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den irailaren 27an, itxarote-zerrendei buruzko Legebiltzarreko agerraldian, Osasuneko kontseilariak esan zuen 2022ko hasieratik azken abuztura arte lehen kontsultetarako "batez besteko itxaronaldia" 113 egunetik 101 egunera jaitsi zela. Batez besteko berandutza prospektibo kontzeptua ohikoa da eta erakusten du kontsultako itxaronaldia, bai publikoki bai Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak itxarote-zerrendei buruz prestatzen duen hileko txostenean eta herritarrei zuzendutako webgunean ere. Bada, batez besteko berandutza prospektibo horrek okerrera egin zuen 2022ko urtarrilaren eta abuztuaren artean, 74 eguneko itxaronalditik 76kora, eta kirurgiako batez besteko itxaronaldiak 6 egunetan egin zuen okerrera, 85etik 91ra.

Batez besteko berandutza prospektiboak modu zehatzagoan proiektatzen du zenbat denboraz itxaron beharko duten herritarrek eta, mezua erraztearen, batez besteko itxaronaldiaz hitz egin dugu eta "batez besteko berandutza" gisa agertzen da webgunean, benetan ematen diren

datuak batez besteko berandutza prospektibokoak direnean.

Ez da ohikoa zuzen zuzenean "batez besteko itxaronaldia" kontzeptuari dagozkion datuak ematea kontsultategiko itxaronaldiaz hitz egitean, kontzeptu hori bakarrik barne erabilerakoa delako, SISNan batez besteko berandutza prospektiboaz gain.

1. Aipatu agerraldian zergatik eman ziren bakarrik batez besteko itxaronaldiari buruzko datuak eta ez batez besteko berandutza prospektiboari buruzkoak, herritarrentzat nahasgarriak baitira?

2. Bilatu al zenuten herritarrei informazio ohikoa eta ulergarria ematea, edo bakarrik mesedegarrien zenuten datua, nahiz eta ohiko erabilerarik ez edukitzea eta publikoki emandako datuarekin konparagarria ez izatea?

3. Bestelako arrazoirik al zegoen, konparazioan ongi ateratzeko zenuten interes soilaz gain, informazioa emateko erabili ohi ez den moduan eta webguneko datuen hileko eguneraketan?

4. Nork erabaki zuen agerraldian ematea "batez besteko itxaronaldiari" buruzko datuak eta ez "batez besteko berandutza prospektiboari" buruzkoak?

Aipatu agerraldian, geroago "batez besteko berandutza prospektiboak" aipatu zuenean, Osasuneko kontseilariak adierazi zuen: "2022ko batez besteko berandutza prospektiboan hobetzea honela uler daiteke, zerrendetan sartzen bazara, denbora laburragoan egonen zara..., agian jende gehiago ari da itxaroten, baina denbora laburragoan itxaron beharko duzu arreta jasotzeko, proiektio horren arabera".

5. Zergatik diozu 2022ko batez besteko berandutza prospektiboan hobetu dela, 2022ko urtarrilaren eta abuztuaren artean batez besteko berandutza prospektiboak benetan okerrera egin baitzuen, bi egunetan, 74tik 76ra, handituta? Herritarrek nahastea bilatzen al duzu, eta sinestarrak 2022ko urtarrilaren eta abuztuaren artean itxaronaldietan hobekuntza egon zela?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00297. Galdera, laguntza integratzeko talde teknikoen bilerei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak laguntza integratzeko talde teknikoen bilerei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zenbat aldiz bildu da legegintzaldi honetan aurreko legegintzaldian lanean hasi zen laguntza integratzeko talde tekniko bakoitza?

Zergatik sortu dira lantalde berriak itxarotzerrendak lehenestean lan egiteko eta ez da landu espezialitateetako laguntza integratzeko taldeetan?

Zer eginkizun berezi definitu da orain sortu diren 6 lantalde bakoitzerako? Noiz sortu da bakoitza? Zer profesionalek osatzen dute talde bakoitza? Zenbat aldiz bildu da, orain arte, talde bakoitza? Bileretako aktarik al dago? Baiezkoan, haietako bakoitzaren kopia eskatzen da. Talde horiek formalizatu al dira?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00298. Galdera, Parlamentuko agerraldian egindako baieztapen bati buruzkoa, zeinaren arabera 2010ean eta 2014an aukera baitzen prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Parlamentuko agerraldian egindako baieztapen bati buruzkoa, zeinaren arabera 2010ean eta 2014an aukera baitzen prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer dokumentaziotan oinarritu duzu joan den irailaren 27ko Legebiltzarreko agerraldian egin

zenuen adierazpena, esan ahal izateko 2010. eta 2014. urteen artean “aukera zegoela prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko”?

Medikuak jartzen al dituzu prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalen artean, zuk esandakoaz horiek kontratatzeko aukera baitzegoen?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00299. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipenerako organoei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipenerako organoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezzen eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko,

Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren 6.1 “Koordinazioa” atalak dioenez, planaren kudeaketa eta koordinazioa egiteko bi egitura erabiliko dira: batzorde estrategikoa eta kudeaketa operatiborako lantaldea.

Ezartzen denez, lehenbizikoa hiru hilean behin bilduko da aurrerabidearen jarraipena egiteko, eta bigarrena bi hilean behin bilduko da.

Honako galdera hauek egiten dira:

1.- Zenbat aldiz bildu da batzorde estrategikoa? Zer datatan?

2.- Zenbat aldiz bildu da kudeaketa operatiborako lantaldea? Zer datatan?

3.- Hileko zenbat txosten eman du kudeaketa operatiborako lantaldeak?

Zer datatan?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/PES-00300. Galdera, New Yorkeko Klimaren Astean lortu diren lankidetzaz hitzarmenei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, New Yorkeko Klimaren Astean lortu diren lankidetzaz hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

New Yorkeko Klimaren Astean zer lankidetzaz hitzarmen lortu da entitateen, enpresen, administrazio publikoen eta abarren aldetik?

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui